

OIARTZUN / Gipuzkoako bidegorri erakusketa ikusgai Manuel Lekuona liburutegian

EGARRIZ/OIARTZUN. DV. Europako Mugikortasun Astearen bezperan, irailak 15, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak sustatuta Gipuzkoako mugikortasun iraunkorraren inguruan eta bidegorrien ibilbideak gai zituen gahigarri bat argitaratu zuen. Honekin batera, Gipuzkoako bidegorri sarea eta Oiartzun, Tolosa, Donostia zein bestelako herrietako



Arditurri bidegorriko irudiak. [EGARRIZ]

bidegorriak biltzen dituen erakusketa ibiltaria antolatu dute.

Jadanik azaroaren 2ra bitartean erakusketa Oiartzungo Manuel Lekuona Udal Liburutegian dago ikusgai, astean zehar goizez 10etatik 1etara eta arratsaldeaz 4etatik 8etara, eta larunbatetan 10etatik 13etara. Bertaratzen direnek erakusketaz gozatzeaz batera, bailaran dauzkagun eta proiektuan dauden bidegorriak jasotzen dituen mapa eskura dezakete. Epe laburrean Oarsoaldeako gainerako herrietan ere erakusketa ikusgai izango da.

Bidegorria nodik nora zabaltzen den jakinik, berau ezagutzera gonbidatzen dugu herritar oro, bai pasiatzeko zein lanera edo bestelako garraio publikoraino hurbiltzeko. Izan ere, erabiltzen duten erregai fosilen kopuru altua dela-eta, motordun garraioa zuzenean erlazionatua dago klima aldaketarekin eta baita gure osasunarekin ere. Orain arte, garraio eredu hau nagusi izanik, administrazio ezberdinek errepide sare zabal baten eraketa kudeatu dute. Bidegorriaren zabalkunde honekin, ordea, kutsatzen ez duen garraioa bultzatu eta zerbitzu egokia emango duen bide sarea eratzen hasi da. Era honetan, garraio pribatu kutsatzailearen murrizketa eman nahi da. Honela, Oarsoaldeako bailarak, udalaz gaindiko beharrei erantzun asmoz, elkarlanean eta ikuspegi amankomun batez, Gipuzkoako bidegorri luzeena izango den bide sarea habian jartzekotan da. Kostaldea eta mendia batzea izango da bide honen ezaugarri aipagarrienetariko bat.

Erakusketa honetan agertzen den bide sare hau gure aisialdirako, erosketak egiteko, lanera joateko eta beste hainbat joan-etorrietarako erabil genezake, autoa eta bestelako garraio kutsakorren erabilera murriztuz. Honela, guztion artean aldaketa klimatikoari aurre egitea lortuko dugu, hurrengo belaunaldiari ingurumen osasuntsu, atsegina eta zoragarri bat utziaz.